



Galizako Briga gazte antolakunde independentistak, gazteriak bizi duen egoera salatzeko kanpaina berri bat abiatuko du. Azken hamarkadan bizi izan dugun krisiak, Galizako gazteriaren egoera txarra okertu duela azpimarratu dute gazte antolakundetik: prekaritatea, emigratzeko beharra, eskubide sozial eta politikoen urraketa, esplotazioa... Honen aurrean Brigak antolatzeko deia luzatu die Galizako gazte guztiei. Horretarako erakunde zehatz batean militatze ez dela beharrezkoa aipatu dute, nahikoa da herri mugimenduko edozein dinamika eraldatzailean partehartzearekin.

